

## BEGOÑA (II): ELEIZEA

Gauza ziurra da gaurko eleiza onen aurretik beste eleiza bat edo batzuk izan zirela Begoñan, baiña gaur arte ez daukagu eleiza orrean ezelako astarrenik. Bear bada gaurkoaren ormetan izango dira aurrekoaren arriak edo azpian geratu leiteke ormaren bat edo.

1.503n. urtean eginda dagoan agiri baten agertzen jaku eleiza aren ondasunen zenbaketa edo inbentarioa: inguruan eleizpea eukan zurezko estalkiagaz, ate bi, gitxienez, sabai bakarraren azpiko erri-lekura sartzeko eta arrizko eleiz-toki bat eta korua eukazan eta aurrean iruditegia, Andra Maria´ren irudia eta Ama onen edesti osoa agertzen ebala.

Tamalgarría da iruditegi ori galdu izana eta alboan dan arrizko eleizatxua, bear ba´da lenengo eleiza erromanikoa izango zan, beste leku batzutan lez. XVII gizaldira arte iruditegi orren zatiak ormetan ikusten ziran. Ara zelan zeaztuten dauzan Begoña´ko parroko izan zan Ugaz Maixuak: "Amalau lauki margotu Andra Maria´ren bizitza "Orra Or gizona" irudi bat, lau ebanjelariak oleoz margotuta eta Flandes´ko tankerakoak. Guztiak dira altara nagusitik kendu zan lengo iruditegikoak".

Ez da arritzekoa XV gizaldian Begoña´n flamenkoen tankerako laukiak izatea. Gizaldi orretan Gaztelan eta emen zabal ebilla tankerak on. Gaiñera Bilbao´k artu-emon asko eukan salerosketan Brujas´egaz.

Margazkiak asko diran ezkerok, iruditegi ori aundia zala esan bear da: Goian Kalbarioa izango eban, erdian Andra Maria´ren irudi au, been "Orra or gizona" ta ebanjelariak. Ori dana galdu zan! Zer emongo ete geunke gaur be eskuartean eukiteagaitik! Zarrak ziralata bota ebazan baiña ortik ulertu al izango gendun oraingoarenaurreko eleiza on ez zala baseleiza txiki bat.

XV eta XVI gizaldietan Bizkaia´n eleizgintzarako zaletasun aundia sortu zan, eleizak aundiagotu egiten ziran, beste batzuk bota eta barriak egin. Or galdu zan Bizkaia´ko erromaniku osoa eta jokera ori eldu jakun

Begoña´ra be. XVI gizaldiaren asieran asi ziran eleiza barria, gaur daukaguna, egiten: Juana erregiñeak 1.511n. urtean, bagillaren 6n. egunean auxe diño: "Oinarríak eta errilekuaren zati on bat eginda dagozela".

Erritarrak emoten eben diruagaz egiten zan eleizea eta zaintzaille ziran jauntxuak eragozpenak ipiñi baiño ez eben egiten. Begoña txikia zan eta emoitzik geienak Bilbao´koak izango ziran, "amarretatik zortzi" diño Lariz´ek. Dirua bai eta baita etxegintzako gaiak be ba-ziran emoitiz: Lezama´ko Martin Ruiz´ek Begoña´ko Argileta´n eukazan arrobietako arria emon eban, bear zan beste". Beste olako emoitiz batzuk be izan ziran eta euren emoilleen ikurdiak age-buruetan agertzen dira.

XVI gizaldian amaitu ziran erdiko errilekua, ezkerrekoa eta torrea. 1.603n. urtean ipiñi eben irudia agiritegiaren erdian. Iruditegia aundikeribakoa zan Donosti´ko Aldundian dagoan ezkontza baten margazkian ikusi daiken lez. 1.640n. urtean iruditegi barria egiteko eskatu eutsoen Pedro de la Torre´ri: zati bikoa izango zan, bata korintotarren tankerakoa eta bestea jonio´tarren eta Konrinto´tarren artekoa batera. Ormea apurtu zan Irudiaren tokia egiteko. Bost urtean egin eban lan ori Foru´ko Alloitiz´tar Antonio lagun ebala.

*Irakurlea: Karmele Fernández, Bilbo*